

Giza Eskubideak

1968'garren urte au, ONU'ren erabakiz, Mundu guziko Giza-Eskubideen Urte bezela izendatua izan da. Onela adierazi nai da, «Askatasun-Agiri» orrek eta or azaltzen dan erri ta gizon zapalduen aldeko Aitorpenak nolako garrantzia duan.

Nazio Batuak egin zuten Aitorpen ori ta Elizak ere bere aldetik onartu du Paulo VI'garrenaren dei larri baten bidez. Dei ontan garbi adierazten du Aita Santuak, Eskubide oiek ez dituala nai lege-utsetan ikusi baizik eta errien Legedieta eta Goberna-bideten onartuak eta aintzat artuak izan bear dutela.

Eskubide-Agiri ori ezkeroko ogei urte auel begiratu bat botata, ezin arrotu gindezke. Mundua epaita oraindik ongi konturatu Eskubide auen bearrak; eta ere Gobernuak beren jokabideen orren arira ibilli. Nunnai indarkeria ta zuzenbidearen zapalketa ikusten baitegu. Ta ori, Gobernuak bearak okerbidetan diralarik. Gizonaren eskubiderik sustaikoan, ankapean dabilta alde askotan. Eguneroko albistariak irakurri besterik eztegu, ori jakiteko.

Erriko seme-alabak, lege-sare baten artean nastuak eta lotuak agertzen zaizkigu. Gobernuen loturak oietzen ari dira nun-nai. Ez gaitzen aztu. «Aginpideak» lizundu egiten du gizona, ta «aginjide neurrigabeak» osoro lizuntzen du gizona. Orregatik mendeko erriarrak, bere giza-mailla zaitzako, aukerako lege ta eskubide-aitorpena bear du.

Gobernuen jabetasunak, bere mugak ba-ditu. Muga olek gizonaren jabetasunak jartzen ditu. Gizonak bere azken-jomuga du. Ezta, beraz, politika bideak zabaltzeko egiña gizona; ez politika-morrore izateko jaioa. Politikaririk onena izanda ere, gizona beste goragoko maillan jarri du Jainkoak. Berak eman diu gizonari askatasuna; askatasun oni eskerrak, gizona bere egitean txalogarri agertuko da.

Orregatik, gizonaren eskubide auek aintzat ez artzeko, ezin ekarri ditzeke aora Kondaira ez politika arrazoiak. Eskubide oiek ezjaitira salmentan eskeintzen diran salgaiak. Eskubide oiek «alda-eziñak, urra-eziñak eta uka-eziñak» baitira.

Bizitzeko eskubidea, askatasunerako eskubide, sindikatuak sortu ta an izena emateko eskubidea; legearen aurrean guziki berdin izatea, elkar-tekoko eskubidea, billeratarako, itzegiteko ta eziera artzako eskubideak, bototan aukeratu izateko eskubidea, ta aukeratzeko botoa emateko eskubidea, ta abar eta abar... ezin baztertu ditzaite iñungo Gobernuak, erriko pa-kea ta elkar-bizitza ondutu gabe.

Mundu guziko Giza-Eskubideen Urte ontan asmatuko al-dute Gobernuak neurri ta lege jatorrak sortzen! Ori baita mundu guziki eskatzen duan gabiadea: Giza-Eskubideak gordeta egon ditezela Eskubidearen agintza-pean.

Jai - Alai

Gustora oso irakurri det bigarren aldiz Miguel Pelay Orozco-k idatzitako Jai-Alai en América, au da, Pelota jokua Ameriketara, orain agertu berri liburua. Bere Los pelotaris —Pelotariak— deritzan liburua aundiaren bigarren zatia da. Liburu osoak iru atal ditu.

Pelay Orozco gure gurea degu. Kanpian denpora luzean ibilli, baiño bere erriak urrutu aldi luzean egote orrek, erminia bizitu egin zion.

Ezagun-ezoguna izaten da gure idazleen artean maitet gaituana eta maitasunik ez diguna. Nabarmen azaltzen da izaera aure. Pelay Orozco-k gutrik bezela maitet gaitu. Gure erriaren, eta baita bertako zenbait gizonen irudi egi-egiakoak, Pelay Orozco-k utziko dizkigu.

Baiño ez bakarrik eskaldunen emen bertako egin-kizun eta jokabideetan, baizik eskaldunen kanpoko bizimoduetan ere bai. Pelay Orozco-k ondo baño obeto ezagutzen bait ditu eskaldunen kanpoko jokarak.

Pelotarien bizitza batez ere, Nik beti izan diet errespeta aundiya kanpian zintzo ibilli ta jokatuta gero, be-ri jaioterria berriro biurtzen diran pelotari.

Baiño emendik aurrera, nere idazle lagun on Pelay Orozco dala bitarteko, begiramen aundiagoa izango dietet.

Bai, Orain ikusten det garbi-garbi nortarañoke meritu daukan Ameriketara eta Filipinas-en, edo zenbait toki aparte ta urrutietan pelotan ari, zintzo, gizonki,

eta aizkenean, korputz biguintasun ta indarrak galtzean, jaioterrian berriro kokatzeak.

Orrelakuak oso gutxi izaten dira. Oso gutxi. Geienak Euskalerritik urrutu gelditzen dira betiko. Ta ez det onekin esan nai, denak gaizki egiten dutenik, ez da antzik ere.

Pamu, txalua, dirua ta okasio erretrak nai aña, ta aizkenik, mailarik-maila jeitzen-jeitzen, mixeri gorrian gelditzen diran oiekin gogoratzen naiz orain.

Euskalerritik urrutu, edozein eginbeerrari eldu bearraren artizten diranakin ditut burutazioak. Gaztedia ugariatasunean, dirua botatzen, eta aizkenean goseti.

Gaztedi osoa esne aparretan, eta akordatu orduko urte onenak pasata xentimo gorriak aurreratu gabe. ¿Zer atetara jo? Eroetako ate-zai bukatu bear bizitza.

Liburu ederra benetan Pelay Orozco-rena. Ba dirudi Miami-n, Caracas-en, sasoi bateko Habana-n, eta oien antzeko zudadet eta bertako frontoietan pelotari gutzien ondo-ondoan gabiltzala.

Kanpoko eskaldun taude berezi batzuen erreturatu benetan arrigarri egin digu Miguel Pelay Orozco-ek-eritorea. Idazle piña, garbia, gutxi bezelakoa. Eta berri-ere esango det: asko maitet gaituana. Baiño maitetasunak ez dizkio begiat lausotzen.

Jose de Artea

Euskal - erriak ez du nahi Unibersidaderik

Bai hala da, Euskal-herriak ez du nahi Unibersidaderik, nahiko du Gipuzkoako edo Bizkaik, bainan ez Eus-

kal-herriak. Euskeraz gutti edo asko idazten dugunok ere geiago maitet dugu bizkaiera edo gipuzkera, uskera baño. ZERUKO ARGIAN idazten duten askok Gipuzko gahiagotan alpatzen dute, bertako irakurleak bakarrik balituzte bezela. Teoriz ikusten dugu Euskal-herria, obeki mintzatzeko gezurrezko teoriz eta sakotasun eta serioitasunik gabe. Euskaltzaindira gipuzkoarrak hunenbeste, bizkaitarrak hunenbeste... joaten gera, ta ez unaiako eskaldunak. Ikastoletan bizkaiera erabili behar da edo gipuzkera, ez euskera. Eleizan «Jauna zuek» esango da, naiz eta errian zuekin esan, Bizkaian gagoz eta, edo «Jaunaren pakea...», naiz eta Laburdi ta Bizkaian ta... gipuzkoaren zati baten baka esan, bai baña Gipuzkoako muga barruan gaude-ta. Probitzia Euskal-herriaren enklabea izango da behar bada. Ta abar eta abar...

Euskal-herriaren batasun konzien-tzirik ezak, ekartzen digu au. Unibersidade kasu huntan, kontuan ar-itu behar ditugu, batasun hori elburu bat hartuta:

- 1) presione talde aundiagoa Unibersidade batekin;
- 2) presione hori aundiagoa Unibersidadea toki baten jarrita;
- 3) elkar hareman gehiago ikasle-aren artean, bizkaitareri edo gipuzkoateakeria kenduaz;
- 4) espezializate errezakoa;
- 5) inbestigatze hobea;gao;
- 6) Terri txikia gerala, agian, jende gutti ikasteko, eziñezko era askotako fakultate bi edo hiru;
- 7) Unibersidadea bat izanik, Donosti edo Bilbao ez dira beharrezkoak.

Bertze herri batzuetan ere hiri txiki-etan badaude: Aix-en-Provence, La Laguna, Heidelberg, Coimbra, Jena... Onati ez ahal dugu hemen?

Hartze ahal ditugun kontuan zappi aurretikoak? Nahi dugu orduan Gipuzkoarentzat edo Bizkaia-arentzat Unibersidadea?

Titz batean, Herri bat behar badugu, berari dagokion Unibersidade on bat behar dugu. Gainerakoak arpa jotzea, geure burua bertze behin engainatzea, «gipuzcoanismoa» edo «vizcaïnismoa» da.

Ta gainera, ta hunekin amaitzen dut Gipuzkoa, Bizkai, Nafarroa ta bertzeak, ez ahal dira geuk eta iñor ezarritako histori geografik kontextu batzuk? Puxkatu, apurtu beharrezkoak ez ahal dira izango gure Gipuzkoako Probitzi «impolluta» hainbertetan ta hainbertez profanatu?, gure Bizkai'ko Jaurri zahar, zindo ta sendoa, Olabarri koleko zindotasunezkoa ta kaiku jaken sendotasunezkoa ta abar? Jarraitzen badute ere irahuten gaurko gizarte-politikan eta administrazio-politika-ek ez ahal die eskatuko bertze planteamendu bat? Bainan au bertze egun baterako utziko dugu.

J. L. LIZUNDIA

Asteik astera

Indar moralaren botherea

ANSA'K

«Igo danak, jautsi bear-esaten omen zuten Txung-tse'k, Kristo'ren lau mende aurreko txinotar ospatsuak. Eta Peru Abarka'k (Txuangu-Tse baiño filosofo txikiagoa etzana) hau esan ere: «Al-dats gorena, aldats berea».

Gizartearen, beheko jendea altxatzeko modua (promozioa dalakoa) ezagutzen dugu, ez ordea goiko mailaetan daudeneri beren leku gozirik egotzeko manera.

Amerikatarrek maillakada zalakoa egin zuten ta nolako moduz desmaillakadatu jakinik gabe ditugu orain.

Ikastekoa dan trataduan berenarekin ezitrela aterako dirudi eta nonbait «quia nominor leo» esaterik ez tute izanen. Benetan ikusgarria, atomo-bondadunak burua makurtu bear izate hau berri txiki baten aurrean!

Gertatzen dana ulertzea ain zaila ez dirudi. Amerikatarrek eskuko zuten Viet-Nam herrihoia deuseztzea, itxidiki batean gañera, baiñan ez dute deuseztu. Zergatik? Bildurragatik? Ez derizkiogu.

Sail hontan ia mundu guztia zuten beren kontra. Aita Santuarengandik, j a k i n t s u, idazle ta politikalarri sonatue-nenganaiño, jende itzalgarri guztiak beren iritzi aurkakoa emana zuen aspaldi hontan. Horregatik hain zuzen ere amerikatarrek ez dira aurre-ago jarraitu maillakada bi-dean.

«Indar-Moralaren» botherea argi ikusten da, Txalo dega-zugun!

Zeren «mens agitat molem»

Milan Kundera eta gu

Sartre'ren "Les Temps Modernes" hillabetekariak «enbaki berezi bat argitara du joan dan Apirrillean Txekoslovakia'ri buruz. Artikulu guziki dira guretzako oso interesgarriak. Baiñan oso bereziki, nere uestez, Milan Kundera'ren "Culture et Existence nationale" deritzana.

"Les Temps Modernes"ek ezagutarazi digun artikulu hau, sarrera gisa izan irakurria Praga'ko IV-gn. Idazle-Biltzarrean.

Gure arteko sasi-jakintsu batzuk eskal kultura "burgestzat" bazterten duten momentuan, oso egokia litzake ahal izan irakurleek Kundera txekotar intelektualearen hitzaldi mamitsua gogoan hartzea. Nahiz goitik behera euskeratzea oso egokia izan, lerro hauetan ezina izango zait osoki itzultzea. Kundera'ren irizpide nagusiak soilik hitz gutxitara biltzen saiatuko naiz.

XIX-gn. mendean Txekoslovakia'ko intelektualek, giroaren kontra (Praga, esate baterako, GÜTZIZ alemandua zegoen), "zentzu"-aren kontra, eta itxurako bentaja askoren kontra, txekera piztuztea, eta alemaneraren kontra azkenariño burrukatzea erabaki zuten. Txekoslovakia'ko intelektualeen irizitzi, txekera salbatzea ala ez salbatzea, nazioari eta herriari berari "bai" ala "ez" esatea iruditzen zitzaien. Eta hizkuntza piztuztetik hasi ziran.

Entzun dezagun Kundera'ren hitzaldia: "XIX'gn. mendean barrena, bere kulturaren oiñarriak jartzen erabili ditugu herriak bere ahaletan guziki: bigarren maillako irakaskintzatik hasi, eta Enziklopedia bat idazteraiño. Hala ere, XX-gn. mendearren hasieratik beretik, eta bi gerrateen artean batez ere, bere Kondairako kultura-hazkuntza garrantzitsua ezagutu du Txekoslovakia'k".

Eta eukiten du beste zenbait lerroetan: "Izan egin behar baldin badu nazioak, herriak bere kultura-balore bereziak sortu behar ditu... Zalantzarik gabe, txekotar pizkundearen garaietatik hunera, kulturaren betekizuna aldatu egin da nazioaren bizieran. eta segurki beste ethnia-zapaldi bat berriz gure kontra gertatzea ez da

gertatuko. Baiña, halaz ere, kultura dago gaur ere gure nazio-izatearen baiespina eta segurtabidea, nik ueste... Ezer ez da inportanteagorik gure herriarentzako, bere kulturaren eta bere literaturaren garrantziaz arnas jabetzea baiño... Ala hizkuntza galitzen, eta dialektu oihurtzen utzi, eta kultura folklore huts; ala europatar nazio bat osoki izan, eta hau ondorio guzikiak. Bigarren aukera hunek segurtu zizaitokean soilki herriari egiazko nazio-biziera bat".

Kundera'ren uestez, beraz, nazio-kulturarik gabe nazioak ez du libre izateko eskubiderik; eta nazio-kulturarik ez dago txekoslovakia'n txekera gabe.

Ondorioa garbia da: Kundera'k baldintza bakar bat jartzen du kultura-pizkunde hortan; eta hau dio: "Nazio txikiak ezin ditzaite beren hizkuntza eta beren nazio-nortasuna geriza, espada kultura-egintzaren fursarengatik". Alegia: hizkuntza horrek eta literatura horrek goratasuna behar dute. Idazleak, beraz, ez du eskubiderik txatxukerarik idazteko, ez du eskubiderik bere herria folklorekerian gorde nahi izateko, ez du eskubiderik Europa'ko eta munduko EGIAZKO KEZKETAIK bereziten saiatzeko. Ez du eskubiderik, bereziki, hizkuntza "mendi-tontorretan" ikusi nahi izateko, hizkuntza gizonengan bizi baita.

Hortatik dator idazlearen erantzukizun larria. Kundera'ren uestez, hori dala bide, txekotar idazlearen eskuetan dago hein batean Txekoslovakia' bizi-eskubidea. Zeren-eta kazkarrak baldin bada herriari ematen zaion literatura, edo koldarra, edo hutsa, herri guztia gizatari joeretatik berezitarazten baita, bazterten baita. Eta hau egiñaz, noski, nazioaren izate-eskubide berbera ukatuko bailitzake.

Txekoslovakia'ko intelektualezko bezelatsu, eta-ka hestua eta zaila da guretzako ere.

Ia batzuen arinkeriak eta ez-jakintasuna erantzukizun larri horrek ezabatzen dituen!

Sasi-jakintsu horien iritziak, azkemik, irakurleak be-rrak erabaki bezu.

LARRESORO

Zeruko Argia

Zuzendaria:
ANTONIO ITURRIA ASTIAZARAN


Naparroko-Kantauriko ta Aragoko Kaputxinoak argitaratua
(Carlos III, 22. Pamplona)

DONOSTIA n:
Oquendo, 22: Telf. 26666

ARRIDE-SARIA:
Urtekoa ... 190 pta.
Atzerrian ... 265

Aldoz artu nai bada, galdetu.

GUÑELESA



Gipuzkoako ta Naparroako esne onenakin gertatutako esnekiak:

- Esne Pasturizatua
- Esne soilla (esterilizatua)
- Esne autsa
- Esne-gañoa
- Gurñoa
- Yogur
- Batidua

Igara auzoa - Apart. 213 - Urrut. 29060 (Iau ari) — DONOSTIA